

Prentsa oharra

Nota de prensa

Donostiako Udalak datorren hamarkadarako ibilbide orria aurkeztu du

Izaera, oreka, hiria, lidergoa eta abangoardia dira 2030erako Plan Estrategiko berriaren bost zutabeak, eta planak 15 helburu estrategiko eta 58 ekintza ildo barne hartzen ditu

Dokumentua jendaurrean aurkezteko ekitaldian, gizarteko arlo guztietako ehundik gora pertsona ospetsu elkartuko dira gaur arratsaldean, Tabakalera

«**Nahi dugun hiria. Aukeren hiria**». Lelo horrekin, Donostiako Udalak eta Estrategia Bulegoak hiriaren 2030 Estrategia aurkeztuko dute gaur arratsaldean.

Halaxe aurreratu dute gaur goizean Donostiako alkate **Eneko Goiak**, Estrategia Bulegoko zuzendari **Kepa Kortak** eta Gizarte Kontseiluko presidente **Daniel Zulaikak** prentsaurrekoan. Guztiek azpimarratu dute **2030erako Plan Estrategikoa** zehazteko oso garrantzitsua izan dela azken urteotan **Gizarte Kontseiluarekin eta hiriko sektore guztietako hainbat erakunde eta eragilerekin lankidetzan** egindako partaidetzazko eta partekatutako prozesua.

«Plan Estrategikoaren helburua gaur daukaguna baino hiri hobea lortzea da. Hiritarrak gustura egongo diren hiria, harro egongo garen hiria. Zerbitzuen maila hobekia izango dituen, auzoen arteko kohesio handiagoa lortze aldera. Norberak bere bizi proiektua hobeto garatzeko aukera izan dezan. Aukeren hiri bat», azpimarratu du Goiak.

Kortak, bestalde, **hiriaren 2030erako Plan Estrategikoaren** oinarri diren **bost zutabeak** aurreratu ditu:

- **Izaera.** Hiriaren eraldaketagatik, gizarte inklusiboago, gazteago eta adiskidetsuago baterantz.
- **Oreka.** Jarduera ekonomikoetarako, turismorako eta merkataritzarako oreka etengabe bilatzen delako.
- **Hiria.** Etengabeko hobekuntzagatik, hiri jasangarria, bizia eta irekia bermatzeko.
- **Lidergoa.** Bikaintasuna bilatzea gure DNAn dagoelako, eta ingurumenaren lidergo *glokal*, gastronomiko eta sortzailea aitortzeagatik.
- **Abangoardia.** Gure bizikidetzaren eredu propioa bilatzen dugulako, gobernantza eredu, hiri garapenaren eredu eta kultura eredu abangoardiako bihurtuz.

15 helburu estrategiko eta 58 ekintza ildo

Arestian aipatutako bost esparru sendo horietako bakoitzak, gainera, **15 helburu estrategiko espezifiko eta 58 ekintza ildo** ditu ondorio.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Horiek guztiek hiriak datorren hamarkadarako duen «ibilbide orria» osatzen dute, eta horren bidez gai erabakigarrienei erantzuteko aurrerapausoak eman nahi dira, horretarako, garrantzi handiagoa duten alderdietan sakonduz. Halaber, hiriaren etorkizunaren ikuspegi komuna lortze aldera, eragileen ahaleginak bideratzea bilatzen du.

Zehazki, honela planteatzen da Donostia 2030:

-IZAERA:

1. **Izaera inklusiboa** duen hiria, zeinak gizarteratze bidean aurrera egiten duen, eta berdintasunaren alde eta gizarte bazterkeriako edozein egoera saihestearen alde borrokatzen den. Horretarako, zenbait eginkizun daude: Donostiako **Gizarteratze Plan** bat prestatzea; **erakundearteko lankidetz**a bultzatzea; **gizarte- eta lurralde-ekitatea** lortzeko neurriak ezartzea; eta **etorkinen integrazioa** sustatzea.

2. **Gaztete demografikoa** bultzatzen duen hiria, biztanleria berriaren etorreraren, erakarpenaren, gazteria mantentzearen eta kontziliazioa erraztearen bidez. Hona hemen ildo horretan proposatutako ekintza ildoak: erronka horri erantzuteko **lan mahai** bat bultzatzea; **gazteen inplikazioa eta lidergoa** sustatzea, eta **biztanleria berriaren etorrera** errazteko eta kudeatzeko **neurriak** bultzatzea.

3. **Hiri lagunkoi** bat, zeinak adinekoen eta zaintzak behar dituzten pertsona guztien bizi kalitatea bermatuko duen; horretarako, «zahartze ona» sustatuko duen eta pertsonen beren bizi zikloan zehar lagunduko dien **hiri estrategia** prestatuko da; gizartearen zahartzearen erronkari eta horren ondorioei buruz **eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune** bat; eta **laguntza- eta zainketa-eredua berrikustea**.

-OREKA:

4. Hiri honek turismo eredu jasangarri bat garatu nahi du, berori sustatzeko **hausnarketa estrategiko** baten bidez, balio erantsi handiko turismo **segmentu estrategikoak** sendotuz eta **hiri marka** eta berorren erakargarritasun turistikoa indartuz eta berrituz.

5. Lurralde industrial aurreratu batean dagoen hiri tertziario baten **garapen ekonomiko orekatu** eta dibertsifikatua indartuko duen hiria. Horretarako, ekintza hauek proposatzen dira: **estrategia** bat prestatzea hiriko **Zientzia eta Berrikuntza sistema gehiago garatu eta sendotzeko**; **Biozientziak-Osasuna** sektorea bultzatzea; **eraldaketa teknologikoaren aukerak** aprobetxatzeko neurriak ezartzea; **ekintzailtza eta enplegu duin eta kalitatezkoa** bultzatzea; **enpresa kulturaren eraldaketa** sustatzea; balio kooperatiboak eta lankidetzakoak sustatzea; eta «**ekonomia berdea**» garatzea, ekonomia zirkularra eta eraldaketa energetikoa sustatuz.

6. **Merkataritza berezi eta hurbileko finkatua** duen hiria, zeinak hiriko bizi kalitateari eta oparotasun ekonomikoari lagunduko dion, ekintza hauen bidez:

Prensa oharra

Nota de prensa

merkataritza eraldatzeko eta suspertzeko plan bat egitea; **berrikuntza teknologikoa eta merkataritza jardueraren hobekuntza** lehiakorra; tokiko merkataritza babestea, **laguntza- eta estimulu-programa** baten bidez; eta **Donostiako merkataritza eredu iraunkor eta adimendun bat** sortzea.

-HIRIA:

7. **Hiri jasangarri bat**, zeinak GJHak eraldatzeko esparru gisa sustatzen dituen, **E2030DSS Estrategia Garapen Helburuekin eta 2030 Agendarekin lerrokatuz; GJH Tokiko Agenda** baterantz kontzientziatuz eta bultzatuz; eta **E2030DSS Estrategiaren monitorizazio- eta jarraipen-sistema eraikiz eta GJH Tokiko Agendarekin konpromisoa hartuz.**

8. **Hiri bizi bat** izango da, hiriko bizi kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatuko ditu, berorren **nortasun propiotik** abiatuta, eta gastronomian, kulturean, ezagutzan eta kirolean oinarrituta, **hiri osasuntsu** bat sortze aldera, zeinak kirol jarduera sustatuko duen bere alderdi guztietan; auzoen artean **zuzkiduren** eta beharren **oreka** izango du; eta **nazioartekotze- eta posizionamendu-estrategia** bat izango du.

9. **Hiri ireki** bat izango da, zeinak bere posizionamendua indartuko duen, maila anitzeko lankidetzan eta lankidetzak publiko-pribatuan oinarritutako lidergo partekatua eraikiz eta kanpoko proiektzioa bultzatuz. Hori guztia, **erakundearteko lankidetzaren** bidez eta hiriak lurraldean partaidetza hobea izan dezan lagunduko duten ekintzen programa bat sustatuz.

-LIDERGOA:

10. **Ingurumenaren lidergoa** duen hiri, **erresilientea**, gizarte-, osasun-, ekonomia- eta ingurumen-erronkei, erronka globalei eta tokikoei aurre egiteko prestatua, zeinak **KLIMA-2050** Estrategia eta Egokitzapen- eta Arintze Estrategiak ezarriko dituen, mugikortasun eredu eta baliabideak kudeatzeko eredu **eraldaketa jasangarri** bat eginez, hiri metabolismo zirkular baterantz aurrera eginez, eta **nazioarteko erreferente bilakatuz ingurumen jasangarritasunaren** eta klima aldaketaren aurkako borrokaren eta horren egokitzapenaren eremuan.

11. **Munduko gastronomian liderrak diren hiri eta lurraldeen** taldean duen **posizionamendua** indartuko duen hiri bat, berrikuntza eta kultura gastronomiko tradizionalaren zaintza uztartuz, **estrategia gastronomiko** baten eraikuntzaren bidez; gastronomian **espezializatutako lan mahai** bat eratzen lagunduz; gastronomiaren balio kate osoan **ekintzaitza eta belaunaldi erreleboa sustatuko dituen agentzia bat** bultzatzea; **elikadura osasungarri eta jasangarriaren estrategia edo plan bat** ezartzea; eta **Donostiako gastronomiaren kultura balioak** indartzea.

12. **Sormenaren eta kulturaren industrien** eremuan **garapenean** aurrera egiten duen hiri bat, batez ere ikus-entzunezkoen, diseinuaren eta musikaren sektorean,

Prentsa oharra

Nota de prensa

tokiko sormen- eta kultura-sektorearen sormena eta profesionalizazioa bultzatuz: ikus-entzunezkoen eta musikaren sektorea garatzea, eta sorkuntza- eta kultura-jarduerak gune edo auzoetako hiri bizitza eta kultura suspertzeko tresna gisa erabiltzea.

-ABANGOARDIA:

13. **Abangoardiako gobernantza eredia** duen hiri, zeinak eraldaketa teknologikoaren eta digitalaren buru den Administrazio Publiko adimendun, berritzaile eta modernizatua duen. Eredu hori eragile publiko eta pribatu eta erakunde guztiak gobernantzan, hiriaren aurrerabidean eta erresilientzian lankidetzan aritzeko bide izango da. Ekintza ildoak: **toki administrazioa modernizatzea; herritarren ahalduzte** handiagoa ahalbidetuko duen gobernantza eredu bat sortzea; eta toki administrazioaren **eraldaketa teknologiko eta digitalean** nagusi izatea.

14. **Hiri garapen jasangarriko eredia** duen hiri bat, zeinak hiri gizakien mailan mantenduko duen, haren hedapena mugatuz, eta aukera guneetatik datozen aukerak aprobetxatuko dituen, plangintzaren bidez lurraldea **modu orekatu, jasangarri eta inklusiboan egituratzeko; aukera gune** berrien kudeaketaren bidez; Donostiako herritar guztiei **etxebizitzarako sarbidea erraztuz eta etxebizitzak haien beharretara egokituz; eta hiri mugikortasun jasangarria** sustatuz.

15. Hiri honetako **kultura ereduak**, batetik, garaikidetasuna eta, bestetik, euskal kultura eta euskara elkarbizitzarako eta komunitatea sortzeko tresna gisa mantentzeko eta eraldatzeko gogoia uztartzen ditu, **Donostiako kultur eredia berrasmatur** (2016 osteko kultura); **euskal kultura eta euskara** sustatuz; kultura **integraziorako, bizikidetzarako eta komunitatea** sortzeko elementu gisa erabiliz; eta **auzoetako kultura suspertuz eta haien erakargarritasuna hobetuz.**

Gizartean aurkeztea

2030erako Plan Estrategikoa herritarrengana eta plana egiten parte hartu duten eragileengana hurbiltzeko asmoz, Udalak eta Estrategia Bulegoak ekitaldi bat antolatuko dute. Ekitaldi horretan, Estrategia zehazteko orduan landu den batasuna eta partaidetzako eta lankidetzako giroa jarriko dira agerian.

Gurutz Linazasoro, Maialen Chourraut eta Iñigo Llopis, Andres Arizkorreta, Ricardo Diez eta Amaia Zurututza izango dira, besteak beste, eszenatokian zuzenean parte hartuko duten pertsonetako batzuk. Ekitaldi dinamiko horretan, ia arlo guztietako eragileei emango zaie hitza, hainbat formaturen bidez, eta **Eneko Goiak** eta **Kepa Kortak** ere hitz egingo dute.

Hitzordua **gaur izango da, abenduaren 2an (osteguna), Tabakalerako Patio aretoan, 19:00etan.**

Gainera, zuzenean ikusi ahalko da Donostiako Udalaren [Youtubeko kanalaren](#) bidez.